

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO DIAGNOSTIKO ESTETIKOA	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0085		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Segurtasuna eta osasuna higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzuetan	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zainketa estetikoetarako kosmetikoak eta ekipoak.	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0354_2: HIGIENE-, DEPILAZIO- ETA MAKILLAJE-ZERBITZU ESTETIKOKO BEZEROARI SEGURTASUN-, OSASUN- ETA HIGIENE-KONDIZIOETAN ARRETA EMATEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB5 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Arreta emateko teknikak aplikatzea edergintza-zentroko zerbitzu estetikoko bezeroei.

EI1.1 Bezeroei harrera egitean, kortesia-formulak aplikatzea, protokolo-tratamenduak kontuan hartuz, eta arreta emateko barneko arauak errespetatzea erabiltzen den komunikazio-kanalaren arabera: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, informatikoa.

EI1.2 Bezeroaren premiak interpretatzea, gogobete dezaketen produktuak eta/edo zerbitzuak zehazteko, galdera gidatuen eta entzute aktiboaren teknikak erabiliz, eta, hala badagokio, informazio hori bezeroekiko erlazioak kudeatzeko aplikazioetan sartzea.

EI1.3 Bezeroari haren beharrak bete ditzaketen produktu eta zerbitzuei buruzko informazio zehatza eta argia ematea: ezaugarriak, prezioa, onurak, etab.

EI1.4 Zerbitzurako egokia den irudi pertsonala izatea —higienea, arropa, mugimenduak, keinuak— eta zuzen eta modu atseginean adieraztea, bezeroarekin harreman komertzial onak sustatzeko, gaur egun zein etorkizunean.

A2: Bezeroaren larruazalaren ezaugarriak eta egoera giza gorputzeko aparatuekin eta sistemekin erlazionatzea, higiene-, hidratazio-, depilazio- eta makillaje-zainketa estetikoak aplikatzeko.

EI2.1 Giza gorputzeko ehunak haien egitura eta funtzioekin erlazionatzea.

EI2.2 Aparatu eta sistemen egitura eta funtzioak eta haien larruazal-motan eta larruazalaren egoeran duten eragina deskribatzea.

EI2.3 Zainketa estetikoak aplikatzea edo mediku espezialista batengana edo beste profesional batzuegana bideratzea eskatzen duten alterazioak edo gabeziak deskribatzea.

A3: Larruazalaren eta haren eranskinen ezaugarri eta kondizio anatomo-fisiologikoak aztertzea, bezeroaren beharren eta eskaeren araberrako arreta emateko.

EI3.1 Larruazalaren eta haren eranskinen egitura deskribatzea eta egiten dituzten funtzioekin erlazionatzea.

EI3.2 Larruazal-mota aztertzeo eta haren diagnostikoa egiteko erabiltzen diren aparatuen oinarria deskribatzea.

EI3.3 Larruazal-motak emulsio epikutaneoaren arabera sailkatzea, higiene-teknika egokienak aplikatzeko.

EI3.4 Higiene- eta makillaje-teknikak aplikatzean eragiten duten larruazaleko alteraziorik ohikoena identifikatzea.

EI3.5 Zirkulazio-alterazioak identifikatzea, depilatzeko teknika egokia aukeratzeko.

EI3.6 Ile-motak sailkatzea, eta desbideratze patologikoak adierazten dituzten zeinuak baloratzea.

Edukiak

1. Bezeroari arreta emateko teknikak.

- Harrera egitea.
- Prestatzea eta kokatzea.
- Behar estetikoak aztertzea.
- Bezeroak informatzea.

2. Oinarrizko giza anatomia eta fisiologia, aurpegiko eta gorputzeko estetikara aplikatuta:

- Zelula. Egitura eta funtzioak.
- Ehunak: kontzeptua eta sailkapena.

- Osagaiak, egitura eta funtziorik garrantzitsuenak aparatu eta sistema hauen zainketa estetikoak aplikatzeko: lokomozio-aparatua, Zirkulazioa lantzekoa. digestio-aparatua, arnas aparatua, ugalketa-aparatua, gernu-aparatua, sistema endokrinoa, nerbio-sistema.

3 Larruazalaren eta eranskinen anatomia, fisiologia eta patologia

- Larruazalaren makroegitura eta mikroegitura: epidermisa, dermisa eta hipodermisa.
- Larruazaleko eranskinak: ilea, izerdi-guruinak, sebo-guruinak eta azazkalak.
- Larruazaleko eranskinen egitura eta funtzioak.
- Emultsio epikutanea: definizioa, konposizioa eta funtzioak.
- Larruazalaren funtzioak: Babestekoa. Metabolikoa. Tenperatura erregulatzekoa. Sentsoriala. Iraiztekoa. Energia gordetzekoa.
- Baskularizazioa eta inerbazioa.
- Larruazaleko funtsezko lesioak:
 - Zaldarra, papula, pustula
 - Kistea, nodulua, besikula, anpoila
 - Makula, zarakarra, ezkatatzea, urradura.
- Teknika estetiko hauetan eragina duten larruazalaren eta haren eranskinen alterazioak:
 - Jariaketa: deshidratazioa, izerdia botatzea, koipea, seborrea.
 - Pigmentazioa: hiperkromiak, akromiak.
 - Keratinizazioa: hiperkeratosia, ezkatatzko keratosia.
- Aknea. Definizioa. Jatorria. Motak. Garapenean eragina duten faktoreak.
- Teknika estetikoekin erlazionatutako alterazio baskularrak. Definizioa eta sailkapena. Eritrosia Telangiectasia Aurpegiko gorritasuna Eritemak Bena-estasiak Angiomak Barizeak
- Ile-sistemaren kantitate-alterazioak Hipertrikosia. Hirtsutismoa.
- Larruazala zahartzeko prozesuaren ondorioz sortutako alterazioak:
 - Zimurrak.
 - Orbanak.
 - Biguntasuna.
 - Deshidratazioa.
 - beste batzuk.
- Narritadura-erreakzioak eta erreakzio alergikoak.
- Larruazal-moten sailkapena hauen arabera:
 - Lodiera
 - Emultsio epikutanea
 - Larruazaleko fototipoa.
 - Egoera

4 Aurpegiko eta gorputzeko diagnostiko estetiko egiteko erabiltzen diren aparatuak

- Hauen sailkapena, deskribapena eta ezaugarriak: Lupak. Mikrokamerak. Sebometroa. Hidratazio-mailaren neurgailua. Larruazaleko fototipoaren identifikadorea. Larruazaleko fototipoaren identifikadorea. Beste batzuk.
- Oinarri zientifikoak eta aplikazio-metodoak.
- Efektuak, erabilerak eta kontuan hartu beharrekoak

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Higijene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.